

IKASTOLAK

265



Bagatoz
indar
berriz!



Argitaratzailea

EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK
Errotazar bidea 126
20018 DONOSTIA
943 44 51 08

Argitaratze data

2025eko urria

Koordinazioa

Amaia Lasa eta Arantza Munduate

Testuak

Koldo Aldabe

Diseinua

Iker Torres

Argazkiak eta ilustrazioak

Aritz Trueba

Inprimatzailea

GERTU inprimategia
Oñati. tel.: 943 78 33 09

Lege gordailua

SS 425-2015

AURKIBIDEA

HARIAN

04 BAGATOK INDAR BERRIZ!

SAKONEAN

12 MARKA BERRI BAT, ALDI
BERRI BATERAKO

SOLASEAN

16 ELKARRIZKETA

IKASTOLAN

24 ERREFLEXUEN INTEGRazioAN
LAGUNTZEKO SAIOAK

26 ARDOAREN ETA ARRAINAREN
IBILBIDETIK

28 MUNGIALDEKO GAZTERIA
EUSKARAZ

30 IKASLEAK, IRAKASLEEI
JATEN EMATEN

PLAZAN

32 XABIROI. HOGEI URTE
ZIZTATZEN



HARIAN



4 HARIAN



Bagatoz indar berriz!

Bagatoz
aldi berri batera!

lazko ekainean ospatutako Zazpigarren Batzarrean hartutako erabakiak martxan jartzeko ikasturtea dugu aurtengoa. Euskal gizarteak dituen erronkei eta hezkuntzari egiten dizkion eskakizunei erantzuteko unea dugu. Eta indar berriz gatoz, betiko balioekin eta proiektu berrieekin, eta aldi berri baterako irudi berri batekin.


Bagatoz indar berriz!

Ikasturte berria hasi da. Euskal Herriko zazpi herrialdeetako **115 ikastolok** zabaldu ditugu ateak. **46.000 familiak, 55.500 ikaslek** eta **3.700 langilek** osatzen dugun eta zenbakiak baino askoz haratago iritsi nahi duen proiektu herritar honetako kideok ohiko martxa hartu dugu berriz.

Araba, Baxenafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Zuberoan aurkituko gaituzu.

Ikasturte berria hasi da. Euskal Herriko zazpi herrialdeetako **115 ikastolok** zabaldu ditugu ateak. **46.000 familiak, 55.500 ikaslek** eta **3.700 langilek** osatzen dugun eta zenbakiak baino askoz haratago iritsi nahi duen proiektu herritar honetako kideok ohiko martxa hartu dugu berriz.

Hasiera guztiek ekarri ohi dute zerbait berria, eta Ikastolok ere, ikasturte honekin batera, aldi berri bat abiatu nahi dugu. Erronka berriak ditugu euskal gizartean, eta ilusioz heldu diegu horiei guztiei; ikuspegi berrietatik jardunez, egitasmo berriak sortuz eta erantzun berriak eskainiz. Eraberrituta eta indarberrituta gatoz, biharko Euskal Herriak behar duen Ikastola ereduarekin. Izan ere, erronkak ez dira makalak: pertsonen aniztasuna eta ekitatea, kulturen arteko





BERRITZEN ETA GARAI BERRIETARA EGOKITZEN DIREN EGITASMOAK



7 HARIAN

harremanak, euskara eta euskal kulturaren transmisioa, denon lurraren geroa, lurraldeen arteko lotura eta sareak, garapen pertsonala eta elkarren zaintza, lan mundua eta gizarte onura... Gainera, hizkuntza, hezkuntza zein herrigintzari aipamena egiten dioten diagnostikoek errealitatea bere gordintasunean azaldu digute. Geldialdi batean gaudela dirudi baina ikastolak ez dugu etsipenean erori nahi, indarraldira jo nahi dugu. Horregatik, erronka horiei erantzuteko hartu dugun konpromisoa irmoa da eta bidea ere ezarri dugu. **Biharko**

komunitatea gaurtik hezten duen komunitatea gara. Komunitate herrikoia, kooperatiboa, prestatua eta konprometitua: ikasleak, familiak, langileak eta ikastolazaleok osatzen duguna. Garai honek jarri dizkigun erronkei ere halaxe erantzungo diegu, komunitate gisa, auto-eraketaren bidez erabakitzen eta antolatzen ditugun bideak urratuz. Ikastolak etengabe ari gara lanean, etorkizuneko euskal herritarrak hezteko bidean, horixe baikara, biharko euskal herritarrak gaurtik hezten dituen hezkuntza

proiektu eraldatzailea. Helburu horiek guztiak lortu ahal izateko proiektu desberdinak ditugu abian. Berritzen eta garai berrietara egokitzen diren egitasmoak. Hezkuntzaren, herrigintzaren eta gizarte proiektuen bitartez eragin nahi dugu. Egungo eta etorkizuneko belaunaldiekin gizartea eraldatu eta hobetu.

Bagatoz proiektu berriekin!

Ikastolak bultzatu nahi dugun **Pertsona Eredua** ezarri dugu, eta eredu horretara iristeko Hezkuntza Marko Orokorra zehaztu dugu. Batean zein bestean ezarritako helburuei begira abiatu dugu **ikas-material berriak** ekoizteko prozesua. Euskal Curriculumuma eguneratzeari ere ekin diogu, egungo errealitatera


ekartzeko. **Hizkuntza Proiektuak** eguneratu eta indartzeko egitasmoa ere martxan daukagu eta urratsak egin ditugu. Ikasturte honetan ezarri dugu DBHn eta datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzan ezarriko dugu **Onki programa**, ikuspegi holistiko batetik landu duguna eta lantzen ari garena, zeinak pertsona bakoitza bere osotasunean hartuz, Ikastolen komunitatearen ongizatea zainduko duen, bereziki ikasleena. **Aniztasunari** erantzuteko begirada propio eta berritzailea garatzen ari gara. **Digitalizazioan** (zer, zenbat, noiz...) eta **burujabetza digitalean** hausnarketa prozesua abiarazi dugu... Eta erronka eta urrats horiei erantzuteko **prestakuntza** eta **aholkularitza** garatu eta martxan ditugu. helburu duen proiektua ere abian dugu.

Aro berri bat markatzera gatoz. Euskal Gizarteak erronka berriak ditu eta ikastolak bagatoz erronka horiei erantzutera. Ez da berria, ikastoletan beti egin izan dugun ariketa bat da hau. Izan ere, sorreratik, eta halabeharrez, egokitu egin behar izan dugu, garai bakoitzak ekarri dizkigun desfioei ahalik eta ondoen erantzuteko.

Beti egin dugu, eta apaltasunez esango dugu ondo samar egin dugula. "Egin",



MAKUSi



Denboraldi guztiak
ikusgai, **MAKUSi**n!

UME ETA GAZTETXOENTZAKO EDUKIAK, **EUSKARAZ!**

Jaitsi gure app-a!



App Store



Google Play



MAKUSi kluba

**KIDE EGIN
ABANTAILA ESKLUSIBOEZ
GOZATZEKO**



@makusi_eus



makusi.eus/kluba

Ikastolen Ikasturte Hasiera ekitaldia

Ikastolak indar berriz gatoz, betiko balioekin eta proiektu berriekin, eta aldi berri baterako irudi berri batekin. Halaxe azaldu zuten, irailaren 25ean, Bergaran, Ikastolen Ikasturte Hasiera Ekitaldian, ikastoletako ordezkariak. Bergarako Seminarixoa mukuru beterik zegoela ospatu genuen ekitaldia ikastolok, eta bertan hitza hartu zuten Ikastolen lehendakari **Nekane Artolak**, lehendakariorde **Erik Etxartek**, zuzendari nagusi **Agurne Barrusok** eta Ikastolen Lagunak elkarteko kide **Kati Iglesiasek**.

Haiei egokitu zitzaien ikastolok hasi dugun aldi berria aurkeztea, aurre egin behar diegun erronkak azaltzea eta nola erantzungo diegun zehaztea.

Imanol Epelde arduratu zen Bergarako Seminarixoan ospatutako ekitaldiaren aurkezpen lanak egiteaz, eta ikastoletako bi ikasle ohien ikuskizunez gozatzeko aukera ere izan zuten aretoa bete zuten ikastolazale eta gonbidatuek. Angeluko **Sunita Camblong** abeslariak eta Lesakako **Martxel Rodriguez** dantzariak hartu zuten parte ikuskizun horietan.





Israelgo Estatua Gazan
palestinarren aurka burutzen ari
den genozidioaren aipamena ere
izan zen ekitaldian. Eta bereziki hil
dituzten haur palestinarrak izan
zituzten gogoan: "Haurrak dira
gizarte bateko talderik zaurgarriena
eta herri batek daukan altxorrik
handiena. Haurrak etorkizuna
dira, bai Euskal Herrian... eta baita
Palestinan ere. Haiek ere merezi
dute, bizitzea, ikastea, jolastea,
zoriontsuak izatea eta etorkizun
bat eraikitzea. Palestinako haurrak
gureak ere badira. Ikastolak
bagatoz, munduko haur guztiak
errespetuz eta maitasunez haziko
dituen mundu bat eraikitzera!



SAKONEAN



12 SAKONEAN



Marka berri bat, **aldi berri** **baterako**

Ikastolak izango da
ikastolen mugimendua
izendatzeko erabiliko
dugun hitza

**Ikastolak marka berria
estreinatu dugu. Erronka
berriak ditugu euskal gizartean
eta ikastolek ilusioz heltzen
diegu erronka berriei, ikuspegi
berrietatik jardunez, egitasmo
berriak sortuz, erantzun berriak
eskainiz, eta orain marka
berriarekin.**

Marka berri bat, aldi berri baterako

Ikastolen Zazpigarren Batzarrean ezarritako erronkei aurre egiteko ezinbestekoa zen gure nortasuna berrikustea eta sendotzea; Ikastolen mugimendua gaurko eta biharko Euskal Herriaren beharretara egokitzea, gure balioak sendotuz.

Gure nortasuna eguneratzera gatoz: hau ez da logotipo soil bat. Marka berria izango da gure nortasuna eta jarrera gizartean adierazteko tresna nagusia. Marka ez da paperean edo pantailan geratzen den zerbait; aitzitik, **marka denok gara**, ikastolen komunitatea osoa, Ikastola mugimendua egunerokoan biziberritzen dugun heinean.

Zertarako eguneratu gure marka?


Gizartea azkar aldatzen ari da, hezkuntzaren inguruan diskurtso kontrajarriak daude eta askotan gure ekarpena ez da behar bezala ikusten edo aitortzen. Horri erantzun nahi dio marka barriak, eta horrekin batera, gure identitatea modu proaktiboan plazaratzeko erabiliko dugu, nor garen eta zer eskaintzen dugun argi eta ozen esateko, eta garai berrietara egokitzeko.



IKASTOLAK da ikastolen mugimendua izendatzeko erabiliko dugun hitza, Ikastolen Elkartea ordezkatu duena.

IKASTOLAK hitzak berak deskribatzen baitu ongien gure komunitatea, 115 ikastolak, 46.000 familiak, 55.500 ikaslek, 3.700 langilek eta milaka ikastola lagun eta ikastolazalek osaturikoa, **“eta batez ere, zenbakiak baino askoz haratago iritsi nahi duen proiektu herritar bat”**.

Aldi berrirako aukeratu dugun izenak eta logotipoak gure izaera erakusten du:



Izar itxurako ikurrak sarea irudikatzen du, horixe baikara: ikastola bakoitzean komunitate bat, saretuta; eta Euskal Herriko ikastola guztien artean beste komunitate bat, hura ere saretuta. Ikastolak.



Hitz hasierako **1** horrekin, bat garela esan nahi dugu. Zazpiak bat. Edo 115ak bat. Historikoki erakutsi dugun ausardia ere jasotzen du i hizkiaren ordezt, zenbaki bat sartzeak. Eraldatzaileak gara, geure burua eraldatzeko prest gaudelako.

Amaierako **-k** horrekin plurala egiten dugu, gure arteko aniztasuna aldarrikatuz, eta aldi berean kolektibo bat garela erakutsiz. Asko gara, ezberdinak gara. Denok gara ikastola.



SOLASEAN



16 SOLASEAN

**“IKASTOLEN
MUGIMENDUA
KOHESIONATUTA
ETA INDARTUTA
DAGO”**

Agurne Barruso, Zigor Ibarzabal eta Anartz Muxika

Ikastolen zuzendari nagusia,
Hezkuntza zuzendaria eta
Finantza eta Administrazio
zuzendaria



Agurne Barruso, Zigor Ibarzabal eta Anartz Muxika

Hasi berri dugun ikasturte honetan ikastoletan martxan jarriko diren proiektuak, dituzten helburuak eta heldu beharreko erronkak hizpide izan ditugu Ikastolen Zuzendaritza Taldeko hiru kiderekin: Agurne Barruso zuzendari nagusia, Zigor Ibarzabal Hezkuntza zuzendaria eta Anartz Muxika Finantza eta Administrazio zuzendaria.

Izen berriarekin eta marka berriarekin hasi du ikasturtea ikastolen mugimenduak. Eta ikastolen Etxean antolaketa berriarekin ere bai. Zeintzuk dira antolaketako aldaketa nagusiak?

AGURNE BARRUSO: Orain arte hezkuntza etapaka antolatuta genuen etxe hau, eta orain erabaki dugu esku artean ditugun proiektuak antolatzea. Hori da aldaketa nabarmenena. Horrekin batera, bereizi egin ditugu gure enpresa egitura eta ikastolei eskaintzen diegun finantza aholkularitza. Gainerakoak, aldaketa funtzionalak izan dira. Azken batean, 7. Batzarrak ezarritako helburuei eta ikastolei hobekien erantzuteko asmoz egindako antolaketa berria da; horri erantzuten dio.

Anartz Muxika, Zuzendaritza Taldean sartu den kide berrietakoa zara. Nola aurkezten zara?

ANARTZ MUXIKA: Orereta ikastolatik nator. 2016ko uztailean hasi nintzen bertan lanean; zuzendari izan naiz ikastolan uda honetara arte eta ikastolen erronkak gustukoak nituelako pausoa ematea erabaki dut eta lantalde honetara batzea.

Proiektu berriekin abiatu zarete ikasturte honetan ere. Beharbada handiena Onki programa izango da, ezta?

ZIGOR IBARZABAL: Zalantzarik gabe. Orain arte maila teorikoan eta ikasmaterialetan lantzen aritu gara, eta ikasturte honetan ikastoletan inplementatu dugu, DBHn. Erronka handia da ikastolen mugimenduan. Tutoretza eredu berri bat dakar, tutoreen funtzioen berrikusketa bat, zer den tutore izatea, zer nolako lanketak eta harremanak sortzea eskatzen digun hezitzaile eta ikasleen artean, arreta non jarri, zer landu...



Agurne Barruso

EGOERA BERRIRA EGOKITU BEHAR DUGU MURGILTZE EREDUA



Horri eta beste aspektu askori erantzungo diote aholkularitza pedagogikoak eta prestakuntzaren birdiseinatzeak?

A.B: Zalantzarik gabe. Onkiri baino gehiagori erantzuten dio. Azken finean, txapel nagusia Hezkuntza Marko Orokorra dugu. Eta hor gure eguneroko praktikak, gure esku-hartzeak, alegia, praktika pedagogikoak nolakoa izango behar duen jasotzen dugu. Baina hori gelara eraman behar da, eta hori egiten dugu gure proposamen didaktikoen bitartez, ikasmaterialen bitartez eta prestakuntzaren bitartez. Baina hori guzti hori konbinatu egin behar da epe ertaineko plangintza batzuetan ondo jasota ondo definituta, dauzkagun baliabideak ondo akonpasatuta eta irakasle klaustroekin bide bat eginda; zuzendaritza taldeei ere bide hori egiten lagundu behar zaie.

Murgiltze eredua eguneratu beharra mahai gainean duzue. Egungoak ez du balio jada?

A.B: Ikastolok euskarazko murgiltze eredua bat daukagu martxan, bestelako gizarte eredua bati erantzuten ziona, eta orain egokitu egin behar dugu. Murgiltze eredua hori martxan jarri genuenean ikastoletako ikasle gehienak euskaldunak ziren eta geletan Estatu mailatik iritsitako etorkinak genituen. Gaur egun dagoen kultur aniztasuna eta distantzia kulturala askoz handiagoa da eta guk horretara egokitu behar dugu, ume horiek ere gure pertsona eremuan jasotako euskaldun oso bereizgarria berenganatu dezaten.



Zigor Ibarzabal

A.M: Lehen euskararekiko atxikimendu maila handiagoa zen, askotan kanpotik etorritako familiek ere baloreen jartzen zuten, hizkuntza eta kultura bere egite horri. Egun, aldiz, aldatu egin da, zailtasunak ditugu egoera berrien aurrean, euskara badenik ere ez dakite askok. Horren gaineko errebisio bat egin beharra daukagu.

Familia tipologia berriak aipatuta, harrera planak eta murgiltze gelak ere aipatu beharko dira, ezta?

A.B: Bai, etorri berrientzako harrera plan oso bat behar dugu, eta plan horren barruan euskararen murgiltzea nola egiten dugun zehaztu, ikaslearen harrera goxatzeko, eta kulturartekotasuna indartzeko. Horretan eragiteko Pulunpa eta Xin egitasmoak ditugu, une honetan pilotaje bat egin daukagu horien emaitzak eta lorpenak jasoak ditugu, eta horien garapena eta hedapena ari gara lantzen.

A.M: Murgiltze gelak ditugu beste helburu bat, etorri berrientzako. Ikastola batzuk pilotajea egiten ari dira. Ditugun baliabideak urriak dira, horrelako egitasmo batek baliabide handiak eskatzen baititu, baina dauzkagunekin saiatuko gara pilotajeak egiten. Murgiltze gelen filosofia eta helburuak zeintzuk izan beharko liratekeen landuta daukagu.

Euskara eta euskal kulturaren gaiarekin amaitzeko, Kultur Plazen aktibazioa aipatzen duzue. Zertan datza?

Z.I: Piztu Plaza izena eman diogu egitasmoari. Euskal kulturaren transmisioa bultzatzeko tresna bat izatea nahi dugu, Batxilergoko adinean diren ikasleei bideratuta. Aliantza bat dago kulturgileekin, haiekin batera egingo da. Planteatzen dugu gure ikasleak kultur sormenean jartzea eta haiek sortutakoa plazaratzea. Lan horretarako euskal kulturgileekin elkarlanean arituko gara. Aldi berean, muga administratiboz gaindiko ikasleentzako topagune bat eskaintzea ere bilatzen dugu.



Anartz Muxika

Digitalizazioa azken denbora honetan eztabaidagai bihurtu da, eta 7. Batzarrak ere gai hau berrikusteko agindua eman zuen.

A.B: Bai, eta erabaki dugu gure marko teknopedagogikoa eguneratzea, daukaguna birdefinituko dugu digitalizazioa noiz eta zertarako erabili ezartzeko.

Z.I: Lehenengo zehaztuko duguna da teknologiak eta digitalizazioak zer ekarpen egiten dioten ikaskuntza prozesuari, eta horren baitan definituko duguna da konpetentzia digitalari begira zer eta nola egingo dugun, eta gero horrek guztiak gure proposamen eta material didaktikoetan zer isla edukiko duen. Hau da, zer digitalizatuko dugun eta zertarako. Lanketa sekuentziazio bat egingo dugu adinen arabera, alegia, HHTik DBHra bitarte sekuentzia bat eginda, eta ondoren gure ikasmaterialetan zer digitalizazio eredu izango duen erabakiko dugu.

Aipatzen duzue esku artean dituzuen egitasmoen neurketatik abiatuta, ikerketa ildoak identifikatzeko asmoa ere baduzuela.

A.M: Planteatzen duguna da badaukagula jardun oparo bat eremu askotan, eta badaudela zenbait elementu egiteaz gain ikerketa zientifikora ere bideratu beharko genituzkeenak. Gaur egun egiten ditugu modu intuitibo batean, zehaztasun zientifikorik gabe. Aurten nahi duguna da egiten dugun jardunaren ikerketa ildoak identifikatzea, eta emaitzen neurketarako, ateratzen ditugun ondorioen ebidentzietarako, ikerketa lerro batzuk garatzea.



Martxan jarritako proiektuen baliogarritasuna neurtu eta horren arabera doikuntzak egiteko sistema bat ezarriko duzue, beraz?

Z.I: A priori egiten ditugun hipotesi eta galdera desberdinak baieztatzen diren edo ez neurtzeko sistema bat proposatu nahi dugu. Normalean lan horiek unibertsitate mailan egiten dira, metodologia zehatz eta zorrotza baliatzen da. Kontziente gara maila horretara iristea ezinezkoa izango zaigula, baina guretzeko esanguratsuak diren ondorioak eta datuak bilduko ditugu hori egin ostean.

Ikasturte berri bat hasi da, zer diozue esateko lehen aldiz ikastolaren aldeko hautua egin duten familiei?

Z.I: Eskerrik asko eta zorionak, egin duzuen hautuarengatik. Ongi egindako hautua izan da zuena, ez zalantzarik eduki. Laster ohartuko zarete ikastola ez dela lau hormetara mugatzen, herrira zabaltzen dela, eta 115 ikastolak osatutako mugimendu bat osatzen dugula. Horrek eman digu indarra honaino iristeko, eta horri esker goaz aurrera eta osatzen dugu biharko euskal herritarrek gaurtik hezten dituen hezkuntza sare eraldatzailea.

A.B: Ikastolen aldeko hautua egitea eskubide bat da, eta harrotasunez egiten den hautu bat da. Gure identitateari lotuta dago. Harrokeriarik gabe, baina harrotasunez.

IKASTOLA ASKOK EGIN DUTE HASIERATIK ONKI PROGRAMA TXERTATZEKO APUSTUA

A.M: Ikastolei ere eskerrak eman nahi dizkiegu ikastola barruan egiten duten lanarengatik, baina baita ikastolaz kanpo egiten dutenarengatik ere. Herri eta eskualde mailan, aitzindaritzak hartuz edota beste eragile batzuekin batera egiten duten lanarengatik.

Ikastolak bakarrik ez, Hezkuntza sistema osoak dituen erronka batzuk aipatu ditugu elkarriketan, herri gisa heldu beharrekoak...

A.B: Hezkuntza sistema osoa kalitatean hobetzeko aldarrikapena dugu beste erronka bat. Herri honek erronka inportante bat dauka gero eta konplexuagoa den gizarte honek egiten dizkigun eskaerei erantzuteko. Hezkuntzari lotutako erronkak ditugu eta beste zenbait faktorek eragindakoak. Hezkuntza eragile guztiak interpelatzen gaitu egoera berri honek, eta onena dugu elkarrekin eta elkarlanean aurrera egitea: hezkuntzaren kalitatea, aniztasunaren trataera, euskararen ezagutza eta erabilpena... Horiek indartzea da gure erronka bat.

**Ikastolen urteko
erronkak**



IKASTOLAN





ANDRA MARI IKASTOLA
ETXARRI ARANATZ

Erreflexuen integrazioan laguntzeko saioak

BRMT Bloombergen Mugimendu Erritmikoen
Terapia aplikatzen ari dira Andra Mari Ikastolan

ASSA IKASTOLA
LA PUEBLA DE LABARKA

Ardoaren eta arrainaren ibilbidetik

Oiondik Bermeroa doan GR-38 ibilbidea eginez, historia
eta ohiturak ezagutu eta gorputza zaintzeko proposamena

LARRAMENDI IKASTOLA
MUNGIA

Mugaz.eus MUnghialdeko GAZteria EUSkaraz

Mungialdeko eskualdea ezagutu, euskaran
eta euskal kulturaren murgildu eta harremanak egin

TXANTXIKU IKASTOLA
OÑATI

Ikasleak, irakasleei jaten ematen

Ekintzailatza-Sukaldaritza Tailerra martxan dute
Txantxiku ikastolan

Erreflexuen integrazioan laguntzeko saioak

Erreflexu primitiboak integratzen laguntzeko BRMT Bloombergen Mugimendu Erritmikoen Terapia aplikatzen hasi dira Etxarri-Aranazko Andra Mari Ikastolan ikasturte honetan. Iaz gaiari heldu eta prestakuntza jaso zuten, bai eta 4 eta 5 urteko geletan ikasle guztiei erreflexu primitiboen balorazioa egin ere. Aurten urrats bat gehiago egin dute, haurraren garapenean laguntzeko.

Fetu edo umeki garaian agertzen diren berezko erantzunak dira erreflexu primitiboak. Jaiotzeko unean, erditzeko bidetik jaisten laguntzen dute, eta jaio eta gero, ezinbestekoak dira bizirauteko (arnasa hartzeko, xurgatzeko....).

Pixkanaka-pixkanaka bizitzako lehen urteetan haurrak egiten dituen berezko mugimenduen bitartez, erreflexu primitiboak desagertzen edo integratzen joan beharko lukete bestelako gaitasun motrizak garatu ahal izateko (katamarka ibiltzeko, belauniko, jarrita edo zutik egoteko).

Aktibo (integratu gabe) jarraituz gero, garuneko ahulezia edo heldugabetasuna izan dezake haurrak. Mugimendu garapen lodiari edota finari eragin diezaioke, bai eta zentzumen pertzepzioa eta ezagutza pertzepzioari ere. Erreflexu primitibo aktiboek blokeo batzuk edo heldugabetasuna sor dezakete haurraren garapen neurologikoan.



**HAURRA
LAGUNTZEN DUTE
BERE GARAPEN
NEUROLOGIKO
ETA MOTORREAN**

Erreflexu baten integrazioak trebetasun berri bat hartzea dakar. Prozesu jakin hau automatikoki ez datorrenean, etengabeko esfortzua eta kontzientzia eskatzen dizkio haurrari eta horrek neke goiztiarra ekar diezaioke. Sintomak ugariak dira: begi-eskuken arteko koordinazio urria, oreka gutxi edukitzea, gorputz-koordinazio eskasa, zentzumen hipersentiberatasuna, oldarkortasuna, antolaketan zailtasunak edukitzea, hiperaktibitatea, ikasteko zailtasunak, zorabioak, arreta eta kontzentrazio arazoak...

EVA RODRIGUEZ ADITUAREN ESKUTIK

Erreflexu primitiboak integratzen laguntzeko moduak badaude, ordea. Horietako bat da BRMT Bloombergen Mugimendu Erritmikoen Terapia. Eta horretan ari da Etxarri-Aranazko Andra Mari ikastola joan den ikasturtetik. Iaz Haur Hezkuntzako profesional batzuek BRMT formazioa jaso zuten Eva Rodriguez adituaren eskutik. Horrekin batera, 4 eta 5 urteko geletan, ikasle guztiei erreflexu primitiboen balorazioa egin zieten eta integratu gabe zituzten ikasleekin erreflexuak lantzeko bidea ireki zuten (etxeko lanketa, kanpo espezialistak...).

Ikasturte honetan, gainontzeko HH eta LHko irakasleek jasoko dute formazioa, aditu berarekin. Gainera, HHTik LH 3.mailara bitartean, ikasgelan BRMT ariketak txertatuko dituzte, erreflexuen integrazioan laguntzeko, eta 4 urteko gelan, ikasleen erreflexu primitiboen balorazioa egingo dute.

Haurrek jaiotzatik era naturalean egiten dituzten mugimenduetan oinarritutako ariketak dira BRMT terapiarenak. Haurrek egiten dituzten mugimendu erritmikoen burmuineko atal ezberdinak konektatzea

lortzen dute (neurogarapena), horrela burmuin-heldutasuna lortuz.

BRMTk proposatzen dituen ariketa erritmikoen baliagarriak dira tonu muskularra erregulatzeko, burmuina, neokortex-a eta lobulu frontala suspertzeko, eta arreta eta bulkaden kontrola hobetzeko. Modu honetan, haurra laguntzen dute bere garapen neurologiko eta motorrean.

“Gure ikastolan, haurren garapen integralari begira lanean jarraitzearen aldeko konpromisoa agerikoa da, haurren beharrak erdigunean jarritz eta horiei erantzuteko lanean jarraituz”, azaldu digute Andra Mari ikastolako ordezkariak.



Ardoaren eta arrainaren ibilbidetik

Ikasturtea hasi bezain pronto, Oiongo Assa Ikastolako ikasleak galdezka dira: "Noiz egin behar dugu ardoaren eta arrainaren ibilbidea?". GR-38 ibilbideaz ari dira, garai batean Arabar Errioxako herritarrek ardoa saltzeko eta bueltan arraina ekartzeko egiten zutenaz. Historia eta ohitura horiek ezagutzeko eta gorputza zaintzeko xedearekin Assa Ikastolak duen proposamen arrakastatsua da.

Gizarte eta Gorputz Heziketa alorretako irakasleek eramaten dute aurrera, eta beste irakasle eta familia batzuen laguntzarekin egiten dute urtero. Ikastolako kideek adierazi bezala, euskara eta gure kultura, gure bazterrak... ezagutarazteko beharretik sortu zen ekimena. "Gurea oso eremu erdalduna izan da, eta gauzak pixkanaka aldatzen badoaz ere, oraindik beharra dago transmisio hori ikastolaren bitartez egiteko. Etxe askotan, izan ere, ikastolaren bitartez egiten ez bada, ez baita inon egiten". GR-38 Oiondik Bermeora doan ibilbidea da eta ardoaren eta arrainaren ibilbide bezala ere bada ezaguna. Garai batean, merkataritza ibilbide bat zen eta produktu horien salerosketarako erabiltzen zen: bertakoek ardoa saltzeko kostaldean eta, bueltan, arraina ekartzeko barrualdera. Ibilbide horren testuingurua lantzen dute gelan, Gizarte alorrean, eta noiztik erabiltzen den, zertarako, garaiko bizi ohiturak zeintzuk ziren eta beste gai batzuk jorratzen dituzte.

Gorputz Heziketa saioetan, berriz, bizi ohitura osasuntsuak eta biziraupena lantzen dituzte. "Batetik, bizi ohitura osasuntsuak eta garai bateko pertsona horiek bezala ibilbidearen zati bat oinez egitea proposatzen diegu ikasleei; eta, bestetik, mendian beharrezko

**MENDILERROA
PASA, TORO
MENDATEAN
GELDITU,
GAZTELUKO
GURUTZERA
IGO ETA
GUARDIARA
IRITSI.**



orientazio eta biziraupen minimo baterako gaiak lantzen ditugu". Helburuak, dagoeneko, jakinak dira: "Gure Historiaren nondik norakoak ezagutzea, are gehiago zonaldean oraindik ardoaren ekoizpenak duen presentzia ikusita, ikasle gehienek gurasoek egiten baitute lan oraindik ardoaren ekoizpenaren bueltan (upategietan, mahatsa biltzen, kortxoak egiten...). Bizi ohitura osasungarriak sustatzea da beste helburuetako bat. Eta azkenik, baina besteak adinako garrantzia duena, hori guztia gelatik kanpo baina euskara hutsean egitea; euskaraz ere lagunekin goatzeko aukerak eskaintzea".

PIPAON, LAGRAN ETA GUARDIA

Gelan landu beharrekoak landuta, autobusez joaten dira ikasleak Pipaon herrira. Han XIX. mendeko etxetxo bat ikusten dute eta orduko bizimodua, etxea, jantziak, dantzak, lurra nola landu, zer jaten zuten... azaltzen dizkiete.

Ostean, lehenengo ibilaldia abiatzen da eta oinez doaz Lagranera (6 km inguru). Herriko frontoia alokatzen dute, dena prest uzten dute, (askaria, lotarako trasteak...) , eta hango tabernan parrilla-jana prestatzen dute denek artean. Afaldu, jolastu eta lotara. Hurrengo egunean GR-38 ibilbidearen interpretazio zentroa bisitatzen dute Lagrango alkatearekin eta nondik nora zihoan, bidearen ezaugarriak eta baldintzak, klima, produktuak... azaltzen dizkiete, bai hitzez, bai ikus-entzunezko baten bitartez ere.

Saio horren ondotik ekiten diote ibilaldiari: mendilerroa pasa, Toro mendatean gelditu (ikaztegiak ikusi eta ikatza nola egiten zen ikasi), Gazteluko Gurutzera igo eta Guardiara iritsi.



GARAI BATEAN MERKATARITZA IBILBIDE BAT ZEN

Unai Velilla DBHko irakasleak laburbildu digu esperientzia: "Ikasleei ingurua ezagutzeko eta naturarekin harremanetan jartzeko aukera ematen zaie. Batzuk ez dute sekula mendia zapaldu! Bestalde, gure arbasoen bizimodua ezagutzen dute eta ohartzen dira garaiko zailtasunak zeintzuk ziren, gaur egun dendetan eros dezakegun edozer eskuratzeko, eta hori guztia, gainera, euskaraz egiteko aukera eskaintzen zaie. Ikastolako orduetatik kanpo euskarazko ekintzak egin ahal izatea gauza handia da gure ingurunean eta gure ikasle askorentzat!".

Mugaz.eus MUnzialdeko GAZteria EUSkaraz

Mungiako Larramendi Ikastolaren ekimenez, herriko ikastetxeetako gazteek aukera dute ikasturte amaieran eskualdea ezagutu, euskaraz eta euskal kulturaren murgildu, elkarrekin harremanak egin eta ongi pasatzeko, sei egun eta bost gaueko kanpamendu ibiltari baten bitartez. 2023an hasi zuten ekimena, ia ezin izan zuten burutu, eta aurten errepikatu egin dute. Heldu den urtekoa ere prestatzen ari dira.

Mungiako gazteriari sei egunez, euskaraz 24 orduz bizitzeko aukera ematea da Mugaz.eus (Mungialdeko gazteria euskaraz) egitasmoaren helburua, beraien giroan, Mungialdea ezagutuz eta euskal kulturarekin harremanetan. Ekimena Larramendi Ikastolatik irten eta antolaketan gehien inplikaturako ikastetxea den arren, Mungiako DBHko 3. eta 4. mailako ikasle guztiei zuzenduta dago. Hori bai, euskararekiko konpromisoa erakustea ezinbestekoa da.



**MUNGIALDEKO
AUZO ETA HERRIAK
ZEHARKATZEN
DITU KANPAMENTU
IBILTARIAK**



Ekimen honen onurak aipatu dizkigute: "Gazteek euskara eta euskal kulturarekin duten harremana indartzen du horrelako ekimen batek. Autonomia eta talde lana ere lantzen da. Gazteei auzo eta inguruko herriak ezagutzeko aukera ematen zaie, eta naturarekin harremana izaten dute. Pantaila barik astebete bizirautea ere ez da onura makala. Herriko ikastetxe ezberdinetako gazteen arteko harremanak sustatzen ditu baita mutil eta nesken arteko berdintasuna ere".

Mungialdeko auzo eta herriak zeharkatzen ditu kanpamendu ibiltariak. Herri zein auzoek utzitako lokaletan lo egiten dute ikasleek, eta bidean leku interesgarriak bisitatzen dituzte. Ekintza osagarriak ere egoten dira baita sorpresaren bat ere, beti ere euskal kulturaren murgilduta.

EUSKARA-ABENTURAN INSPIRATURIK

"Euskara-abentura ekimenean inspiratu ginen, eta herriko ekimen bat ezinbestekoa ikusten genuen eguneroko euskararekiko inertzia apurtzeko. Era berean, herrian nukleo euskaldun gazte bat sustatzea dugu helburu. Badakigu kantitatea ez dugula, baina gutxienez kalitatea bilatu nahi dugu".



29 IKASTOLAK

35 ikaslek hartu zuten parte azken edizioan, eta primeran pasa zuten: "Dibertimendua da gakoa, oso-oso ondo pasa zuten partaide ia denek eta hori euskararen testuinguru baten egiten bada, euskarak eragin positiboa sor dezake beraiengan. Gure gazteei erakutsi behar diegu euskara ez dela eskolako hizkuntza soil".

Larramendi ikastolan gustura daude ekimenarekin, eta konbentzita daude fruituak emango dituela: "Ez dakigu oraindik zeozer lortu dugun, baina hazi bat ereiten denean ere ez dakigu fruitua emango duen. Argi dagoena da hazi barik ez dagoela fruiturik".

Ikasleak, irakasleei jaten ematen

Ekintzailletza-Sukaldaritza Tailerra martxan dute Txantxiku ikastolan.

Oñatiko Txantxiku ikastolako DBH 4. mailako Ekintzailletza ikasgaia hautatu duten ikasleek kooperatiba bat osatu zuten iazko ikasturtean, eta haren bitartez irakasleentzako menu osasuntsu bat diseinatzen eta prestatzen dute astean behin, eta salerosketaren kudeaketa ere egiten dute. Irabaziak eskualdeko gobernuz kanpoko erakundeetara doaz. Ekintzailletza hautazko ikasgaia dute Txantxiku Ikastolan, DBH 4. mailan. Ikasturtean zehar 'Ikasle kooperatibak' izeneko proiektuak garatzen dituzte ikasleek, Euskal Herritik kanpoko hainbat ikastetxetako ikasleekin elkarlanean. Kooperatibak sortzen dituzte, horrelako negozio eredu bat aurrera eramateak dakarren guztia euren gain hartuz eta eguneroko lana egikaritzuz.

Iazko ikasturtean, etxera begira jarri ziren. Ikusi zuten ikastolan Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan lan egiten duten hainbat irakaslek ikastetxean bazkaltzeko beharra daukatela; horietako batzuk HH eta LHko ikasleak dauden eraikineko jangelara joaten dira eta, beste batzuk, etxetik ekartzen dute bazkaria eta 'biltoki' deitzen dioten espazio komunean bazkaltzen dute. Irakasle haientzako janaria prestatzeko ikasle kooperatiba bat sor zitekeela ikusi zuten, eta ikusi eta egin. Gainera, ikastolan etapan arteko elkarlanean hamarretako osasuntsuaren inguruko lanketa egiten dihardute azken urteetan, eta elikadura osasuntsuaren gaineko kezka hori ere uztartzea pentsatu zuten.

Hiru hari horiek batzetik ondoko proiektua garatu zen: Ekintzailletzako ikasleek irakasleentzako menu osasuntsu bat diseinatu, prestatu eta salerosketaren kudeaketa egitea astean behin. Ondorioz, hiru helburu betetzen dituzte: ikasle horiek ikasgaiko edukiak eta konpetentziak lantzea benetako proiektu baten bidez, irakasleek otordu osasuntsua eraikinean bertan jasotzea eta elikadura osasuntsuari buruzko gogoeta egin eta aukera errealak bistaratzeko.

**GAINERA, BENETAKO
KOOPERATIBA BAT
OSATZEN DUTEN
HEINEAN, MENUAK
KOB RATZEN DITUZTE
ETA DIRU IRABAZIAK
DITUZTE**





Menuaren diseinuan, ekoizpenean, banaketan eta salerosketan DBH 4. mailako Ekonomia eta Ekintzailtza ikasgaiko ikasleek parte hartzen dute, eta onuradunak Bigarren Hezkuntzako ikastetxean lan egiten duten hainbat irakasle dira.

Ikasleek garaiko produktuen eta menu osasuntsuaren osaerari buruzko saioak jasotzen dituzte proiektuaren hasieran. Hori barneratuta, asteroko dinamika ondokoa izaten da: garaiko produktuak kontuan hartuta hurrengo asterako menua diseinatzen dute. Ostean, menua irakasle taldeari bidaltzen zaio eta menua jaso nahi dutenek izena ematen dute. Eguna iritsitakoan, ikasleak Oñatiko gaztelekuko sukaldara jaisten dira eta bazkaria prestatzen dute: plater nagusia edo postrea edota bi plater. Irakasleek euren ontziak biltokian jutzen dituzte goizean goiz, eta ikasleek menua prest dutenean ontziratu egiten dituzte eta irakasleek eguerdirako prest izaten dute bazkari beroa.

ARRAKASTA ETA BALORAZIO ONA

Proiektuaren arrakasta ikusita, Ikastolako Zuzendaritzak ikasturte amaieran proposamen berezia egin zien ikasle horiei. Batxilergoa amaitu duten ikasleak eta familiak agurtzeko egin zen ekitaldi bereziko catering-a eurek prestatzea. Pozik onartu zuten eta halaxe egin.

Gainera, benetako kooperatiba bat osatzen duten heinean, menuak kobratzen dituzte eta diru irabaziak dituzte. Ikasturtean lortutako irabazi horiek GKE bati bideratzen zaizkio. Ikasturtean ikasleek azterketa egin zuten inguruko GKEen inguruan, iazko ikasturtean Hotz Oñatik jaso zuen diru hori.



31 IKASTOLAK

Ikasleengandik jasotako balorazioa oso positiboa izan da, eta ikasgaia ematen duten irakasleentzako ere oso aberasgarria izan da, ikasleak ohiko ikasgelako testuingurutik kanpo elkar ezagutzeko aukera dutelako eta ikasle horietako batzuek ikusi dutelako motibazio eta jarduteko gogo berezi bat.

Menua jasotzen duten irakasleak ezin pozago daude, astean behin bazkari osasuntsua, lekuan bertan, beroa jasotzen dutelako, eta gainera, ikasleekiko harremanean ere eragin positiboa duelako.

Arrakasta ikusita, ikasturte honetan ere heldu diote ekimen honi.

PLAZAN




Xabiroi

Hogei urte bete ditu Xabiroi aldizkariak. Euskal komikigintza basamortu batean zegoela abiatu zen, eta egun bizi duen loraldiaren 'errudun' nagusia da. Entzute handiko egile sare emankor batean oinarrituta, Xabiroi aldizkariak euskal komikigintza berpiztu du, aldizkaritik haragoko sinergiak bultzatu ditu, eta komikia lehen aldiz Euskadi Literatura Saria irabaztera eramane du, baita bigarren aldiz ere.

Hogei urte ziztatzzen

2005. urtean abiatu zen, Ikastolen bultzada eta babespean, Euskaraz Bizi egitasmoaren barruan.



Garai hartan, euskal komikigintzari dagokionez, egoera ez zen batere oparoa. *Ipurbeltz*-ek eusten zion oraindik, baina amaitzeaz zegoen, eta hortik aurrerakoa basamortu baten antzekoa zen. *Ipurbeltz*, gainera, haurrei zuzendutako komiki aldizkaria zen. Nerabe eta gazteentzako ez zegoen eskaintzarik. Hutsune hori betetzeko sortu zen *Xabiroi*, nerabe batentzat egokia izango dena baina heldu batek ere gustura irakurriko duen aldizkaria. Dani Fanoren gidaritzapean abiatu zen, eta halaxe dirau oraino.

Zegoen hutsunea betetzea zuen helburu *Xabiroi*-k, baina bazituen beste batzuk ere: nerabe eta gazteen irakurzaletasuna bultzatzea, euskararen hautua egin dezaten lortzea, komunikazio bizirako baliabideak ematea, ere baziren helburuak. Izan ere, komikiaren hizkuntza oso zuzena da, oso kolokiala, adierazkorra... eta hori ere bada euskarari ekarpen bat egiteko modua. *Xabiroi* aldizkariaren xedeetako bat bilakatu zen, beraz, kaleko euskara jasotzea eta kaleko euskarari proposamenak egitea.

Euskal komikigintzak une oparoak ez bizi arren, baziren komikigileak, bestelako ilustrazio eta marrazketa lanetan ari zirenak, edota atzerriko argitaletxeentzat lanean zihardutenak. Haien lanen erakustoki izan da urteotan *Xabiroi*. Aldizkariak, Dani Fanok, argi ikusi du urteotan guztiotan *Xabiroi*-k kalitatezko komikigintza eskaini behar duela, eta horretarako sortzaileek baldintza duinak izan behar dituztela, bai sortzeko denboran, bai gaiak jorratzeko askatasunean eta baita alderdi ekonomikoan ere.

Komikigileak aipatu ditugu, baina *Xabiroi*-ren ekarpena izan da, baita ere, komikigintzan ez zebiltzan sortzaile ugari erakartzea: Harkaitz Cano, Arantxa Iturbe, Eider Rodriguez, Koldo Izagirre, Uxue Alberdi... eta gidoilariak eta marrazkilariak elkarlanean jartzea. Kolaboratzaileen arteko bikote artistikoak Fanok elkartu ditu. Hortik sortu dira Alex Sanvi-Unai Iturriaga, Harkaitz Cano-Iñaki Holgado, Susanna Martin-Uxue Alberdi edota Ekaitz Agirre 'Garluk'-Garbiñe Ubeda bezalako bikoteak.

Xabiroi aldizkariak 77 zenbaki kaleratu ditu eta 19 album. Albumek bizitza luzegoa eman diete aldizkariak atalka argitaratutako 19 lani. Hasieratik izan zuten helburu hori, alegia, gero album bihurtuko ziren istorioak egitea. 2007an argitaratu zuen *Xabiroi* aldizkariak lehen albuma: Irati. Eta oraindik ere album horren ale ugari saltzen dira. Orain arte bizitza luzeena izan duen lana da, are, film ere bilakatu baita.

Hori da hogei urteok utzitako uzta. Eta hogei urte iraun baditu, Ikastolen apustuarengatik izan da, ikastoletako harpidetzengatik, eta ikastolaz kanpoko irakurle-harpidedunengatik. Era berean, ibilbide hau ez litzateke posible izango aldizkariaren bueltan egile sare bat egonkortzea lortu ez balitz, eta egile sare hori egonkortu da maiztasun jakin bat daukan argitalpen bat izan delako *Xabiroi*. Guztiarekin, egile sare hori, *Xabiroi* familia bilakatu da. Izan ere, *Xabiroi* aldizkariak ongi zaintzen du komunitate hau, elkarrekin azoketara joanez, bazkariak eta egun pasak eginez...

Xabiroi Datuak eta gehiago

77 zenbaki eta 19 album.

Hogei urteotan *Xabiroi* aldizkariak eman duen uzta.

90 egile.

Bakarka, zenbaitzuetan, baina bereziki taldean eta elkarlanean, 90 egile inguruk hartu dute parte *Xabiroi* aldizkarian; horiek osatzen dute *Xabiroi* familia.

Bi Euskadi Sari.

Iban Zaldia eta Julen Ribasen '*Azken Garaipena*' eta Eider Rodriguez eta Julen Ribasen '*Santa Familia*' albumek Euskadi Sariak jaso dituzte.

Komikitik filmara.

Xabiroi aldizkarian argitaratu zen '*Irati*' lehen aldiz, eta album batean bildu zen gero Joxean Muñozek eta Juan Luis Landak sortutako lana. Paul Urkijok eraman zuen zinemara, ondoren.

Elkarlana.

Ez da soilik egileen artekoa, *Xabiroi* aldizkariak Trikitilari Elkartarekin ere egin du lan. Elkarlan horren emaitzak dira '*Sasi artean Elgeta*' (Koldo Izagirre, Dani Fano eta Garluk) eta '*Maurizia. Biziminaren hotsa*' (Garbiñe Ubeda eta Garluk) albumak.

140
1886-2026



Deusto

Deustuko Unibertsitatea

INFORMAZIO SAIOAK

Azaroaren 15etik abenduaren 2ra

Online eta aurrez aurre

Bilboko eta Donostiako campusak

Jakintza arloak

HEZKUNTZA ETA KIROLA

ESKU-HARTZE SOZIALA

POLITIKA ETA NAZIOARTEKO HARREMANAK

ENPRESA

ZUZENBIDEA

KOMUNIKAZIOA

HIZKUNTZAK

OSASUNA

INGENIARITZA

Informazio
gehiago:



deusto.eus/saioak

